


**SOLASEAN
ETA
JOLASEAN**

Euskararen belaunaldiz belaunaldiko
transmisioa indartzeko modulua



**UMEEN JOLASAK
ETA KANTAK
IKASLEAREN LIBURUSKA**

HABE

EGILEAK:

Proiektuaren arduraduna: **Xabier Elortza** (HABEko Programa Berezien arduraduna)

Didaktikaria: **Alex Mungia** (HABEko teknikaria)

Diseinua eta maketazioa: **Olaia Ubeda**

Sabin Arzelus (HABEko teknikaria)

Mertxe Salegi (HABEko idazkaria)

Gure esker ona, neurri batean edo bestean, modulu hau egiten lagundu diguten guztiei:

- Imanol Urbieta musikari eta pedagogoari eta Xirula Mirula taldeari.
- Hizkuntza Politikarako Sailordetzako teknikariei.
- HABEko lankideei.



1. SARRERA

- | | |
|----------------------|--------|
| 1.- Helburu nagusiak | 5. or. |
| 2.- Banakoen edukia | 5. or. |

2. BANAKOAK

A. BANAKOA: Batetik bestera eta hizketan hasi

- | | |
|--|---------|
| 1.- Bizitzerik bai musikarik eta jolasik gabe? | 8. or. |
| 2.- Jolasaren eta kantuaren garrantzia | 12. or. |
| 3.- Ume txikia ikasteko irrikitan dago | 15. or. |
| 4.- Umetxoarekin jolasean euskaraz | 17. or. |
| 5.- Azken xedea | 19. or. |
| 6.- Autoebaluazioa | 20. or. |

B.- BANAKOA: Dendan eta harrapaketan

- | | |
|---|---------|
| 1.- Umearekin hizketan | 22. or. |
| 2.- Baina, nola? | 27. or. |
| 3.- Harrapaketan | 29. or. |
| 4.- Euskara zorrozten | 37. or. |
| 5.- Zer egingo dugu umeentzako egunean? | 41. or. |
| 6.- Autoebaluazioa | 42. or. |

C.- BANAKOA: Haur-kantak

- | | |
|-----------------------------------|---------|
| 1.- Loa-loa txun-txurrin berde... | 44. or. |
| 2.- Egungo musika | 48. or. |
| 3.- Gurasoak, haurrak eta musika | 50. or. |
| 4.- Euskara zorrozten | 52. or. |
| 5.- Katalogoa osatzen | 53. or. |
| 6.- Autoebaluazioa | 56. or. |

3. ERANSKINAK

- | | |
|--|---------|
| 1.- Euskarazko produktu batzuen aurkibidea | 57. or. |
|--|---------|

1 Sarrera

Orrialde hauetan, beste modulu bat bideratzeko proposamena bildu dugu. Gaia mugatu beharrak ekarri gaitu jarraian doazkizuen banako edo unitateak proposatzera, nahiz eta badakigun hamaika alderdi gehiago ere lan daitezkeela.

Ekarpen batzuk egin nahi izan ditugu, helduen eta umeen arteko jolas-kantuetan eragiteko; belaunaldiz belaunaldiko euskararen transmisioa sendotzeko xedearekin. Horretarako, gure ustez garrantzizkoak diren hainbat esparru eta jarduera zehazten ahalegindu gara.

Bestalde, bi ohar egingo ditugu. Alde batetik, haurren garapenean agertzen diren hiru etapa nagusiak zehaztean adituak bat datozen arren —lehenbizikoa, jolas funtzionalaren aroa; bigarrena, jolas sinbolikoarena; eta, hirugarrena, jolas arautuarena—, ez dira ados jartzen urteak mugatzean, ezta etapa bakoitzaren ezaugarriak zehaztean ere. Bestetik, joko eta jolasei buruz jarduteko ezinbestekoa da adin-tarte eta garapen-aldi batzuen arabera sailkatzea, baina argi dago errealitatea ez dela hain zurruna, den-dena baturik doala, adin ezberdinetan zehar ez dela aldaketa zakarrik gertatzen. Guk lehenengo bi aro nagusietan ardaztu dugu modulu hau, alegia, 7-8 urteko umea izan dugu mugarri.

Azkenik, modulu honetan parte hartzen duten guztiek haurrekin jolasean eta kantuan egiten dutenerako hainbat eduki lantzea dugu helburu, eta, orobat, heldu horien euskara-maila hobegotzen laguntzea, moduluak ematen dituen aukeren arabera, jakina. Era berean, umeekin jolasean eta kantuan aritzeko egungo materialaren berri izango dute, banakoetan gauzatuko dituzten azken xedeei esker, baita banatuko dugun erreferentziazko materialaren aurkibidearekin ere.



1.- HELBURU NAGUSIAK

- ✓ Umeen jolasak eta kantak lantzean, une gozo eta aberasgarriak igaro.
- ✓ Jolasaren eta musika-kantuaren garrantzia aztertu, bai haurren garapenaren ikuspuntutik, bai hizkuntzaren transmisioarenetik.
- ✓ Jolasa eta kantua euskal kulturaren esparruan aztertu.
- ✓ Umeekin aritzeko edukiak landu, hots, jolasean eta kantuan egiteko euskarazko esapide, formula...
- ✓ Kontuan hartzeko hainbat irizpide didaktiko eta linguistiko aztertu.
- ✓ Moduluan parte hartzen duten helduen euskara-maila hobea egotuz.
- ✓ Nork bere euskararen dauzkan alde positiboak nabarmendu, eta dituen hutsune eta gabeziez jabetu.
- ✓ Arlo honetan sakontzeko, ikasleek umeekin jolasean edota kantuan aritzeko material egokia ezagutzea.

2.- BANAKOEN EDUKIA

1. Batetik bestera eta hizketan hasi

- ✓ Banako honen hasieran, jarduera ludikoaren eta kantuaren garrantzia azpimarratuko dugu.
- ✓ Gero, *jolas funtzionalaren garaiari*¹ lotuko gaitzaizkio

Hasieran, haurrak bere gorputza du jostailu gogokoena. Adimena eta jolasa batera doaz, gozamina oinarri. Bigarren urtearen hasieran, amagandik bereizten hasiko da, hizketan eta ibiltzen hasten den neurrian.

Garai honetan, esperimentatzeko jolasetan aritzen da, eta 2-3 urteekin jolas sinbolikoekin hasiko da.

¹ Jolas funtzionalaren garaia: jaio eta 2 edo 3 urte artekoa.

2. Dendan eta harrapaketan

- ✓ Bigarren banako honetan, *arautu gabeko jolas sinbolikoaren*² garaiari dagozkion edukiak izango ditugu hausnargai.

Bi edo hiru urterekin umeek helburu zehatz batekin egiten dute jolas. Neska-mutilek helduen portaera imitatzen dute, jasotzen dituzten eredu sozialak birsortzen dituzte, imitazio-jolasak ditugu. Lau urtetik boatera jolasak gero eta sozialagoak dira, umea sinbolismo pertsonaletik sinbolismo kolektibora igarotzen da, eta jolasak arautzeko eta ordenatzeko joera sortzen da.

Rol-jokoak: dendaria/eroslea, gurasoak/semi-alabak, irakaslea/ikaslea, polizia/lapurra, indioak/bakeroak, etab.

- ✓ Era berean, *araututako talde-jolasak*³ ere izango ditugu hizketagai.

Jolas batzuk: harrapaketan, gordeketan, soka-saltoan, puxtarrietan, txapetan, futbolearen, etab.

3. Kantuan

- ✓ Banako honetan, musikaren eta kantuen arloa landuko dugu.

² Arautu gabeko jolas sinbolikoaren garaia: 3 eta 5 urte bitartekoa.

³ Araututako talde-jolasak: 5 urtetik 7-8 urte artekoa

2 Banakoak



Batetik bestera eta hizketan hasi

b a n a **A** k o a

AURKEZPENA

Gizakiok gure-gurea dugu jolasa, jatea edo lo egitea ditugun bezalaxe. Eta, askok eta askok jolasa denborapasa hutsa dela uste duten arren, argi dago umea hazi eta hezi egiten dela jolasaren laguntza ukaezinaren bidez.

Bizpahiru urte bitarteko haurtxoaren hezkuntza eta hazkuntzaren gaineko hausnarketa egiteko asmoa dugu banako honetan; eta, umearen lehen urte horietan hitzaz jabetzearen ingurukoak azpimarratuko ditugu bereziki.

Gutziz garrantzizkoa da familiak umeari laguntzea, haurraren hizkuntza akatsik gabea eta osatua izan dadin. Gogoan har dezagun, bestalde, pentsamendu argia hitzen bidez adierazitako pentsamendua dela.

Garai honetan, "umeen hitzak" —ume-hizkera— oso interesgarriak dira, horiekin arrakasta ziurtatuko baitugu. Zerbait egiten ari garela gauzatuko dugu hizkuntz jolasa. Adibidez, umeei janari-kontuak gustuko dituztenez, horiek balia genitzake, baita etxeko lanak ere —erratzak edo aspiradora pasatzea, arropa lisatzea, ontziak garbitzea...—, etab.

BANAKOAREN AZKEN XEDEA

Aukera ezazu proposatzen dizkizugun bi xedeetatik bat, gustukoena duzuna:

1. Oso interesgarria litzateke lehenengo banako edo unitate honetan jolasaz eta kantuaz aztertu duten guztia beste batzuei kontatzea: adibidez, senarrari edo emazteari, edo seme-alabaren irakasleari, edo lagun bati, edo...
2. Ume txiki bati batera aritzeko jolasak proposatzea, eta biltzea. Horrela, hainbat jolas bildu ez ezik, gero erabili ere egin ditzakete beren inguruko umeen batekin.

1.- BIZITZERIK BAI MUSIKARIK ETA JOLASIK GABE?

1.1.- Jolasarekin eta musikarekin lotutako hitzak

Irakur itzazue ondorengo lerrook.

Bat al zatozte lau lagun horiek esandakoekin? Zergatik?

Jolasean eta kantuan ari den bitartean, hirulau urteko gure haurra doinuz eta erritmoz hornitzen ari zaigu, hizkuntza musikalaren elementuak eta eskemak bereganatzen ari da.

Euskara, zorionez, onomatopeiez beterik daukagu. Guk geure eguneroko mintzo praktikatik baztertu baditugu ere, haurren musikagintzan ezinbesteko garrantzia izan dezakete delako onomatopeiek. Zehazgabeak, magia eta sormenez beteak, eragileak eta adierazkorrak izanik, benetako musikaltasunaz osaturik agertzen baitzaizkigu. (...)

Ase ezinik daukagu haurra, inguruko hots-iturri guztietatik edan nahirik. Hain berezkoa duten imitazio-senaz egoki asko taiutuko dute gure kantatzeko halamoduko tankera. Nola entzun, hala erantzun.

Imanol Urbieta, XIXUPIKA 1. GIE. 1981

Ikastetxe gehienetan jolastokietako jolasetan haurrek erdaraz abesten dutela ikusten genuen eta euskarazko jolas abestirik ez dakitela.

J.M. Auzmendi. ARGIA astekaria, 97-11-23

Guk, adibidez, euskal kanta zaharrak irakasten ditugu. Zeren eta orain gaztetxoek ez dakite "Pello-Joxepe" kantatzen. Lau kanta irakasten zaizkie eskolan. Eta ez ikastolan eta ez kontserbatorioan ikasten ez badute, non ikasi behar dute folklorea?

Joxan Goikoetxea. ARGIA astekaria, 96-12-15

Amaren ezpainetatik irtendako sehaska abestietatik hasiz, haurrak ehundaka jolas jolastuko ditu, batzuk bertakoak, bere inguruan jaiok, beste batzuk kanpotik etorriak. (...)

Zenbait jolas berrituz, aldatuz joan dira, beste zenbait, berriz, galdu egin dira. Azken finean jolasa bera da, azken denboretan batik bat; eboluzio teknikoaren eraginez, gizarte modernoak ezarritako klitxeak direla medio. (...)

Gaurko haurrak espazio edo tarte bat duenean, aire librean "harrapaketetan" jolastu beharrean zera egiten du: futboleko jolastu.

Joxemari Urteaga. EHUN JOLAS ESKOLARAKO. Erein. 1986

A

banakoa




Jarraian, azpimarratu jolasarekin nahiz kantuarekin lotutako 8 hitz, gutxienez. Ulertzen ez duzuen baten bat balego, galdetu edo bilatu esanahia hiztegian.

Sekula sortu al duzue letra-zoparik? Oso erraza da, eta, gainera, ume koskorrek oso ongi pasatzen dute.

- ✓ Aukera itzazue hitz batzuk Urbietak, Auzmendik, Goikoetxeak eta Urteagak adierazitakoeta-tik, eta presta ezazue letra-zopa bat. Horretarako, elkartu ondoan duzuen lagunarekin.
- ✓ Prestatutakoan, emaiozue beste bikote bati, egin dezaten.
- ✓ Ezagutzen ez dituzuen hitzen esanahiak aurkitu.
- ✓ Batzuek, letra-zopako hitz ezkutuak bilatzeko, hauxe egiten dute: alfabetoko lehenengo letra hartzen dute, A, eta Arekin hasten dira hitzak bilatzen, gero Brekin, eta horrela...

Zuek teknika hori erabili al duzue? Zein bestela?



A

banakoa

1.2.- Jolasean eta kantuan aritzeko ohiturak

Hitz egin aldameneko lagunarekin, eta bete ezazue ondorengo inkesta.

1. LAGUNARI BURUZKO DATUAK

Izena _____

Jaioterria _____

Adina _____

Sexua _____

Ikasketak _____

Seme-alabarik? Bai Ez


Lanbidea _____

Etxeko hizkuntza? G E

G = batez ere gaztelaniaz; E = batez ere euskaraz.

2. MAIZTASUNA

	Inoiz ez	Batuetan	Sarritan	Ia beti
Entzuten al duzu musikarik?				
Zerorrek abesten al duzu?				
Jolasean aritzen al zara seme-alabekin?				
Ipuinik kontatzen al diezu?				
Jaioberriari lo-kantarik abestu izan al diozu?				



A

banakoa



3. EZAGUTZA / ERABILERA	Ezagutu ere ez	Ezaguna	Baita erabili ere
Papo (ume-hizkera)			
Aldapeko sagarraren adarraren punta (abestia)			
Dona, dona, katona (zotz egiteko formula bat)			
Haurtxo txikia sehaskan dago (abestia)			
A ze pareta, karakola eta bareta (esaera)			
Dira, dira, zezenak dira (abestia)			
Ninia (ume-hizkera)			
Nirea nire eta zurea gure (esaera)			
Hiru txito izan eta (abestia)			
Punbala (ume-hizkera)			
Atzo, atzo, atzo (abestia)			
Zer ikusi, hura ikasi (esaera)			

- ✓ Kantaren bat abestu, ezetz!
- ✓ Orain, zuen taldean, atera kontuak, eta hitz egin ezazue jasotako erantzunen gainean. Emaitzak eskuan, prestatu taldeko kideen ohiturei buruzko testu txiki bat.
- ✓ Akatsik larrienak eta usuenak irakasleak zuzenduko ditu bukaeran.

2.- JOLASAREN ETA KANTUAREN GARRANTZIA

2.1.- Umeen ohiturak

Ikusi bideoan jasotako hiru egoera hauek, eta, binaka, erabaki ezazue zein bideo-egoera zein jolas-arori dagokion.



JOLAS-ARROAK

1. Adin horretako haurren jolasak, alde batetik bestera mugitu eta gauza berriak bilatzeak sortzen dion gozamenaz gain, helburu zehatzen bat ere izan ohi du. Neskato-mutikoek helduaren portaera errepikatzen dute, errealitateak datuak hartzen dituzte, eta imitazio-jolasean aritzen dira. Horrela, hartxintxarrak, egur-zotzak, paperorriak... salerosketarako gozoki edo barazki bihurtzen dituzte, adibidez. Jolas sinbolikoa errealitatearen eta fantasiaren arteko mugan dago. Garai honen bukaera aldean, jolasa gero eta sozialagoa izango da, hau da, nagusiki bakarrik jolastetik taldean jolastera pasatzen dira, eta jolasak arautzeko eta ordenatzeko joera sortzen zaie berez.
2. Haurra besteren ikuspuntua ulertzeko gai da, eta elkartasunaren eta elkarlaguntzaren oinarriak sortzen dira. Autonomia areagotu egiten da, eta helduekiko menpekotasunetik jolaseko lagunekiko berdintasunera igarotzen da. Umeek nortasuna indartzeko beharra dute, eta, ondorioz, sexu berekoekin ibiltzen dira, mutikoak mutikoekin eta neskatoak neskatoekin.
3. Haurrak mugimenduaren kontrola bereganatzen du. Mugimenduak behin eta berriro errepikatuz ibiliko da. Ingurunea bizi nahi du, dena ukitu, dena ikusi, usaindu eta entzun. Errepikatze horretatik datorkio sekulako bizipoza. Hasieran, amari oso lotua dagoen arren, garai horren amaieraren inguruan hizketan hasten da, eta fikzio- eta imitazio-jolasetan murgiltzen.

A

banakoa



- ✓ Ulertu al duzue hiru testuon mamia? Ulertzeko arazo bereziren bat izan baduzue, galde iezaiozue gelako baten bati.
- ✓ Orain, hitz egin taldeko kide guztien artean egin duzuen lanaren gainean, eta ea iritzietan bat zatozten.

Erreparatu zeuen inguruko umeen jolasei: etxean daudela, plazan beste umeekin, asteburuan, etab. Moduluko partaide bakoitzak berekasa egingo duen behaketak bideoaren gainean egindakoa zuen inguru hurbilean gertatzen denarekin erkatzea du helburu. Horretarako, ondorengo laukia bete dezakezue:

Eguna	Umea(k)	Adina	Tokia	Jolasa	*G / E
astelehena (adibidez)	Irati eta Julen	3	auzoko plazan	bata bestearen atzetik korrika jolasean	G + E

*Gaztelaniaz (G) edota euskaraz (E)

- ✓ Horrela, taldeko kide guztien artean hitz egin "landa-ikerketa" horri buruz, eta ea ondorioren bat atera dezakezuen. Kontua ez da inolako tesia egitea, baizik eta atentzioa eman edo azpimarratu nahiko zenuketen zeozer azaltzea. Adibidez: umeen adinei buruz, jolas-motei buruz, neska eta mutilen arteko harremanei buruz, helduen partehartzeari buruz, hizkuntzei buruz, etab.



2.2.- Helduon jarrerak eta iritziak

Ikastetxean, lagunartean, senitartekoen artean, telebistan, irratian eta beste hainbat lekutan eztabaida dezente egon izan da helduok hurrekin izaten dugun jarrera dela eta.

Ondorengo adierazpen guztiok irakurri ondoren, zehaztu zeuen jarrera. Horretarako, jar ezazue gurutzetxo bat dagokion laukian.

ZER IRITZI DUZU?	Bai	Ez	Ez dakit
Helduok ez dakigu hurrekin zertan eta nola jolastu.			
Esaerak, abestiak, ipuinak, etab. osagarri hutsak dira, ez dute garrantzi handirik.			
Jaio eta lehen egunetik beretik hitz egin behar diogu umetxoari.			
Ahal dela, <i>bai</i> edo <i>ez</i> erantzuna eskatzen dituzten galderak egin umeari.			
Ona da umeez telebistaren aurrean atsedean hartzea: lasaitu egiten dira, hizkuntza ikasi, gozatu, sormena landu, etab.			

- ✓ Elkartu beste bi lagunekin, nor bere iritzia ager dezazuen. Horretarako, adierazi, batetik, bat zertan zatozten, eta, bestetik, zertan ez, baita ezadostasunaren arrazoiak ere.





3.- UME TXIKIA IKASTEKO IRRIKITAN DAGO

3.1.- Haurrari lagundu

Irakurri bi testu horietako bat.

1

"Umearen urrezko adina"

Jaio berri den haurrak,
eskarmentu, ikasketa edo
trebetasunik gabekoak, bost edo
sei urteren bueltan zuzen hitz
egingo du, salto egin, mezuak
ulertu, irakurri, batuketak egin,
idatzi... Izadiaren mirari ikusgarri
hori lortzeko, gurasoek erakutsi
egin behar diote umeari,
hazkuntzaren urratsak egunez
egun jarraitu eta ahal den guztian
susperdu eta lagundu, dituen
trebetasunak ahalik eta gehien
gara ditzan. (...)

Aditurik gehientsuenak bat datoz:
erabakigarriak dira umearen
lehendabiziko sei edo zazpi
urteak, beren ahalmen guztien
garapen oso eta egokirako.

*BERNABÉ
TIERNO. "Umearen
bizitzaren aurreneko bost
urteei buruz jakin beharreko
guztia". San Pablo
argitaletxea, 1994.
* itzulia*

2

"Bi zerbitzu berri"

Familiako praktikei buruz egin
diren ikerketa askok bi puntu
nagusi utzi dituzte agerian:

- a) haurrak badituela hainbat
gaitasun jaiotzen denean, eta
- b) gurasoek oso lan garrantzitsua
dutela, beraiek dira-eta lehen
hezitzaileak.

Horregatik, interesa duten
helduek haurren hezkuntzaz
eta garapenaz hausnartzeko
aukera dute gure
zerbitzuan, seme-alabak
hezitzaile batekin jolasean
dabiltzan
bitartean.

*JUBETE, M.; MAJEM, T.;
ESTELA, A. "Context i Infància"
proiektua. Institut Municipal
d'Educació de Barcelona.
JAKINGARRIAK aldizkaria.
33-34. zkiak, 1996.
* egokitua*

✓ Jarraian, bilatu testu bera aukeratu duen baten bat.

A


banakoa

✓ Bat al zatozte testu horietan adierazitakoarekin?

- Zergatik?
- Taldeka eztabaidatu.



✓ Ikasi al duzue hitz edo esapide berriren bat? Idatzi koadernoan.



A

banakoa



4.- UMETXOAREKIN JOLASEAN EUSKARAZ

4.1. Gogoratu

Gogoratu norekin, noiz eta zertan ibili zineten jolasean azkenengo aldiz:

Seme-alabaren urtebetetzean?

Atzo bertan ilobarekin?

Kontu-kontari?



Beharbada, partxisean aritu zinen?

Futbolean edo pilotan, agian?

4.2. Ea zenbat asmatzen dituzun?

Lotu ezker aldeko hitz edo egoerak eskuineko zutabeko umeen hitz, onomatopeia, koplaxo eta abarrekin.

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Umea besoan hartzean esaten da. | <input type="checkbox"/> Senda, senda, mina, muxu oilo mina, senda, senda, mina, joan da Maddiren mina. |
| <input type="checkbox"/> Izaki beldurgarria. | <input type="checkbox"/> Kokoloa. |
| <input type="checkbox"/> Hortzak. | <input type="checkbox"/> Plisti-plasta. |
| <input type="checkbox"/> Uretan bainatzean. | <input type="checkbox"/> Apa. |
| <input type="checkbox"/> Txokolatea. | <input type="checkbox"/> Mamua. |
| <input type="checkbox"/> Haurrari logalea etorri, logaletu. | <input type="checkbox"/> Honek arrautza txiki bat ekarri zuen, honek erretzen ipini zuen, honek gatza eman zion, honek piska bat probatu zuen, eta pikaro zantar honek den-dena jan zuen! |
| <input type="checkbox"/> Umeari hatzak hartuta esaten da. | <input type="checkbox"/> Kikak. |
| <input type="checkbox"/> Haurtxoak min hartu eta nigarrez ari dela esaten zaio, lasai dadin. | <input type="checkbox"/> Martin itsua etorri zaizu. |

A

banakoa

- ✓ Erantzunak erkatu ondoko lagunarekin. Bat al zatozte emandako erantzunekin?
- ✓ Ba al dakizue beste hitz edo koplatxoren bat? Idatzi koadernoan, eta azaldu zein egoeratan erabiltzen dituzuen.
- ✓ Zalantzarik edota argibiderik behar izanez gero, jo ezazue irakaslearengana.

Azkenik, zuek dakizuenarekin arituko gara.

1. Binaka, txarteltxotan idatzi umetxoekin erabiltzen dituzuen hitz, onomatopeia, koplatxo eta horrelakoak.
2. Ondoren, dagokion galdera idatzi txarteltxoan alde batean (bestean erantzuna azalduko da).
3. Gero, bildu txartel horiek, eta biribilean jarri kide guztiak. Txandaka, batek txartel bat hartu eta ondokoari egingo dio galdera. Aldameneko horrek zuzen erantzuten badu, txartela jasoko du; baina, ez badaki, hurrengoari pasatuko dio, eta horrela jarraituko dute, egoki erantzuten duen baten bat topatu arte.
4. Txartelik gehien biltzen duenak irabaziko du.

4.3. Zein esapide baztertuko zenuke?

Erabaki ezazue, zuen ustez, zein den esapiderik egokiena.

Adarra jotzen ari da
Ilea hartzen ari da

Ekartzea pena merezi du
Ekartzea merezi du

Berandu etorri zara
Asko tardatu duzu

Es ke esan nion
Esan nion ba

- ✓ Hirunaka jarri, eta aukeratu baztertzeko esapidea.
- ✓ Irakasleak argituko ditu azken zalantzak.






5.- AZKEN XEDEA

Azken xedea gauzatzeari begira lan egin duzue banako honetan. Hortaz:

- Aukeratua izango duzu jadanik burutu nahi duzun azken xedea. Zein da, lehenengoa ala bigarrena?
- Berrikusi banakoan zehar jaso dituzun oharrak. Besterik bururatzen al zaizu?
- Gero, taldeka elkartu, aukeraturiko azken xedearen arabera, eta azken xedea gauzatu ahal izateko erabakiak hartu.

Lagungarri gisa, horra hainbat alderdi:

1. Aztertutakoa besteren bati kontatzea	2. Zenbait jolas egitea
* NORI? * NOIZ? * NON? * ZERGATIK? * ZER? * NOLA?	* NOREKIN? * NOIZ? * NON? * ZERGATIK? * ZEIN JOLAS? * NOLA?



6.- AUTOEBALUAZIOA

Bukatzeko, ebaluazio-galdera batzuk:



1 . Umetxoarekin aritzeko ezer berririk ikasi al duzu?



2 . Euskararen gainean ezer berririk ikasi al duzu?



3 . Gustura ibili al zara lanean?

4 . Aztertu euskaraz jarduteko duzun erraztasuna. Arazo berezirik aurkitu al duzu landu ditugun eginkizunetan? Zein arlotan?



- ✓ besteekin euskaraz hitz egiteko
- ✓ besteek zer esaten duten ulertzeko
- ✓ testuak irakurtzeko
- ✓ testuak idazteko
- ✓ testu idatziak ulertzeko
- ✓ beste batzuk

5 . Adierazi azken xedea gauzatzeko esperientziaren nondik-norakoak.



6 . Zuen iritziz, zer falta

zaio eta zer du soberan moduluak?





b a n a **B** k o a

dendan eta harrapaketan

AURKEZPENA

Bi edo hiru urteko umeek helburu jakin batekin egiten dute jolas. Neska-mutikoek helduen portaerak imitatzen dituzte beren jolasetan. Lauzpabost urtera bitartean, arautu gabeko jolas sinbolikoetan murgiltzen dira —adibidez, salerosketan—, eta piskanaka-piskanaka taldeko jolas arautuetara igarotzen dira —esaterako, harrapaketan, txapetan edo futboleant—.

Umearen lehendabiziko sei edo zazpi urteak oso garrantzizkoak dira, haurrak garai horretan garatzen baititu, hein handi batean, berezko ahalmen guztiak. Eta, horregatik, belaunaldiz belaunaldiko euskararen transmisiorako, ezinbestekoa da hizkuntzari ere erreparatzea.

Ikuspuntu horren arabera, umearen garapen oso eta egokia bilatzearekin batera, bi xede nagusi ditugu haurrei buruz helduok: batetik, ahalik eta hizkuntz eredurik txukunena ematea, eta, bestetik, umearen jolasetan eragiten saiatzea, haurrak beren aisialdian euskara erabiltzera sustatzeko.

BANAKOAREN AZKEN XEDEA

Eman dezagun seme-alabaren ikastetxeko Guraso Elkartekoak edo auzo-elkarteko Jai Batzordekoak zaretela eta jaietan umeentzako eguna antolatu behar duzuela. Egitaraua orrialde bakar batean jasoko duzue.

Horretarako, honako urrats hauek dira egokiak:

1. Egun horretan egingo dituzuen jolasak zehaztu.
2. Xehetasunak erabaki: ardurak banatu (materiala, zein zertan arituko den...), etab.
3. Jolas horiek gauzatzeko hizkuntz edukiak: jolasaren deskripzioa (zer egin behar duten, nola, noiz...), jolasari berari lotutakoak (hiztegia, koplatoak, abestiak, zotz egiteko formulak...), etab.
4. Azkenik, haurren egunaren egitarau xehetua osatu ondoren, proposamena gauzatzeko ahalegina egin dezakezue: senitartekoen artean, ikastetxean, auzoan...

B

banakoa

1.- UMEAREKIN HIZKETAN

1.1. Seme-alabarekin hizkuntza lantzeko

"Umeak hitz egiteko,
pentsatu egin behar du,
eta, pentsatzeko,
bizi egin behar du!"

Pauline Kergomard

Hitz egin ezazu moduluko beste kideekin P. Kergomard-ek dioenaren gainean. Bat al zatozte? Nola ulertu duzue?

1.2. "Txokolate-pastela labean sartu gabe"

Umekin batera egiteko, oso aproposak izan ohi dira sukaldeko errezetak; batez ere, jatekoa prestatu eta gero jateko aukera baldin badute.

Irakurri **txokolate-pastela labean sartu gabe** nola egiten den, arretaz irakurri.

TXOKOLATE-PASTELA LABEAN SARTU GABE

Litro bat esne ipini irakiten. Bi tableta txokolate eta ehun gramo gurin piskanaka bota ontzi horretan, eta gero eragin ondo urtu arte.

Beste ontzi batean azukrea eta ura nahastuta, urazukrea prestatu. Gero, gailetak —lau bat pakete txiki— urazukre horretan busti.

Bukatzeko, plater zapal batean tartekatu gailetak eta txokolatea. Hozten utzi, izozkailuan sartu, eta kitto.



HABE aldizkaria, 107. Zkia

B banakoa



Gero, esan / berridatzi, zer urrats egin behar diren, txokolatezko tarta egiteko. Nahi izanez gero, ondorengo hauek erabili:

- ◆ Lehenbizi
- ◆ Gero
- ◆ Bukatzeko

Azkenik, beste tarta bati buruzko errezetaren bat proposatu, zuk dakizuenen bat izan liteke. Sukalde-kontuak ez badituzu gogoko, galdetu etxekoei, edo dakien bati. Errezeta erdaraz badago, itzuli euskarara.


✓ Jarraian, alderatu **txokolate-pastela labean sartu gabe** errezeta zuk ekarritakoarekin:

1. Osagaietan.
2. Egiteko moduan.
3. Denboran.
4. Zaporean.

1.3. Hizkuntza lantzeko jolasak

Binaka jarri, elkartu gelako beste kideren batekin. Norekin?

1. Hiru urte bitarteko umeren bat duen baten batekin.
2. Lau urtetik gorako umeren bat duenarekin.



B

banakoa

Irakurri, seme-alabaren adinaren arabera, dagokizuen txarteleko esaldiak, eta, zalantzarik bazenu, argitzeko bidea egin.

1 hizkuntza lantzeko jolasak

(batez ere, hiru urte arteko umeekin)

1. Zenbait imitazio egitea.

Adibidez, behiaren Muuuuu!

2. Zerbait egiteko jolasak dira eraginkorrenak.

Adibidez, etxeko lanak egiten ari garela, umea bera zerbait egiten ari dela, etab.

3. Zerbait hartzen badugu, "zer hartu dut?" galdetuko diogu.

Adibidez, pilota gorria, handia, etab.


4. Umeak zerbait egin ondoren, "zer egin duzu?" galdetuko diogu.

Adibidez, baloiari ostikoa eman ondoren.

5. Konparazioak egin ditzakegu.

Adibidez, bi pilotarekin jolasean ari bagara, "handia/txikia", etab.; edo pertsona baten eta pilotaren artekoa: "pilota urrun dago, eta zu, berriz, gertu".

6.





2 hizkuntza lantzeko jolasak

(batez ere, lau urtetik gorako umekin)

1. Zenbait ekintzaren deskripzioa egitea.

Adibidez, sukaldean errezetaren bat prestatzea. "Txokolatzeko tarta" egiten badugu, hiztegia lantzeko aukera izango dugu, besteak beste: mehea/lodia, moztu, erantsi, nahastu, xerra, ontzi, zabaldu, ganean/azpian, biguna/gogorra, itsatsi/bereizi, sartu/atera, hoztu/berotu, erre, harrotu, txiki-txiki egin, maribainutan jarri, goilarakada, apaindu, usain ona, goxoa...

2. Inbentarioa edo hitz-zerrendak egitea.

Adibidez, tarta egiteko erabilitakoak bilduta.

3. Umeek, sarritan, ez dutenez oso argi ikusten fantasiaren eta errealitatearen arteko muga, ipuinak ere balia genitzake.

Adibidez, beste batean, sakeleko gauzak erabiliko ditugu jolas-giroan: "Txano Gorritxok titarea, haria, jostorratza eta guraizeak ditu patrikan", edo " Pinotxok, berriz, patrikan duen mukizapiari zortzi korapilo egin dizkio", etab. etab. Bestalde, konparazioak ere egin daitezke umeen sakelak eta aitarenak edo amarenak alderatuz, etab.

4. Oroitzapenak gogoratzea ere baliabide oparoa da. Horrelakoetan, laguntza handikoak izaten dira aipua (gauzaren bat, argazkiren bat, liburu, abesti...).

Adibidez, gustuko musika entzuten ari garela, ipuin edo filmen bat gogora dezakegu; kamamila hartzen ari garela, belar-urez eta gaixotasunez hitz egin dezakegu, eta nork bere esperientziak kontatu, etab.

5. Proiekturen bat ere egin dezakegu umekin.

Adibidez, oporretako bidaia antola liteke (zer eraman, nondik nora joan, zenbat egunez, zer egin...); edo, bestela, eskulanean bat egin liteke umearekin.

6. Azkar erantzuteko jolasak ere biziak izaten dira.


Adibidez, "esaidazu itsusiaren aurkakoa".

7.

B banakoa

Gero, zuen eserlekutik altxatu, eta hitz egin gelako beste kideekin txarteleko esaldiak osatzeko —esaterako, adibide gehiago proposatuz—, edo beste ideiarekin batzuk jasotzeko.

Azkenean, jasotako jolas guztiak aurkeztuko dituzue banan-banan.



B

banakoa



2.- BAINA, NOLA?

2.1. Testa

Etxekoen eta zure euskara-maila aberasteko, zuk ere hainbat esperientzia eta estrategia izango dituzu, ziur aski.

Jarraian, strategi zerrenda bat duzu. Batzuk zerorrek sarritan erabiltzen dituzunak izango dira, agian; beste batzuk, ordea, batzuetan baliatuko zenituen; beste batzuk, aldiz, behin edo behin erabilitakoak izango dira; eta, azkenik, izango dira sekula santan erabili ez dituzunak ere.

✓ 0 eta 3 arteko puntuak banatu zerrendako estrategien artean, erabilpenaren arabera.

0: inoiz ez

1: behin edo behin

2: batzuetan

3: sarritan

	ESTRATEGIAK	Puntuak
1	ETB1 ikusten duzunean, aukeratu egiten duzu programa, besteak beste, euskara txukunagoa darabiltelako.	
2	Etxera seme-alabentzako bideo-zintaren bat eraman baino lehen, euskaraz ba ote dagoen begiratzen duzu.	
3	Umeentzako ipuinen bat erosten baduzu, euskarazkoa eskuratzen duzu.	
4	Etxeko hiztegi elebidunetan argitzen dituzue zalantzak.	
5	Oro har, euskaraz gehiagotan hitz egiten saiatzen zara, eta adi egoten zara, hitzak nahiz esapideak ikasteko eta etxekoei irakasteko.	
6	Hitz edota esapide berriak zerrendatxo batean idazten dituzu, eta patrikan gorde, tarteka-marteka berrikusteko aukera izateko.	

GUZTIRA:

B banakoa

EMAITZAK

0-2

Begira ezazu zeini jarri diozun hutsa.

Ondoren, pentsa ezazu ea zergatik ez duzun estrategia hori inoiz erabili izan.

Beharbada, hemendik aurrera beste modu batean jokatzera eramango zaitu hausnarketa horrek.

Euskara-maila paregabea baduzu, segi lasai. Baina, aitzitik, hobetzeko premia izanez gero, zeozer egiten hasteko aholkua emango dizugu, neke handirik gabe, uste baino gehiago egin dezakezu eta.

3-4

Bereizi bi multzotan 0-1 eta 2-3 jaso dituzten estrategiak.

Zergatik erabili dituzu batzuk besteak baino gehiagotan?

Gogoeta honek duzun euskara-maila lantzeko estrategiak hobetzera eraman zaitzake.

Egia esateko, nahikoa strategi maila baduzu ere, ahalegin txikiren bat gehiago egingo bazenu, askoz emaitza hobek lortuko zenituzke.

5-6

Lehen ere horrelako gogoetaren bat egin izan al duzu?

Erreparatu punturik gutxien jaso duten strategi multzoari: Zergatik erabiltzen dituzu gutxiagotan?

Test honi emandako erantzunen arabera jokatu gero, ez duzu inolako arazorik izango zure euskara-maila jasotzeko.

Jarrai bide horretatik!

2.2. Besterik?

Pentsa ezazu ea euskara lantzeko besterik egiteko prest zauden. Ondorengo alderdiok zehaztu, eta lan-taldekoekin hitz egin honetaz guztiaz.

1. Besterik egiteko prest al zaude?
2. Zer egingo duzu?
3. Noiz hasiko zara?
4. Zenbat egunetan ahaleginduko zara?



B banakoa



3.- HARRAPAKETAN

Umeak auzoko plazan jolasean ari badira, talde-jolasen batean murgilduta ibiliko dira, ziurrenik: harrapaketan, gorde-gordeketan, etab.

3.1. Jolaseko formulak

Jolasari hasiera emateko, badira zotz egiteko formulak, hau da, dena delako izatea nori egokitzen zaion erabakitzeoak; adibidez, haurrak harrapaketan ari badira, nor izango den *ama*. Hona hemen, horietako hiru:

"Dona, dona, katona,
sutondoan aitona,
lepotik behera kuttuna,
kanpora neska-mutil tuntuna,
azeituna, babarruna,
atera dadila
neska-mutil tuntuna".



"Isabela, Manuela,
Katalina,
tente gulente tipi-tipi-
ton,
Martin zapaton,
Kaxkamela tronpeta,
lau kili-kon:
1-2-3-4-5".



"Don-don,
Kikili-kon,
sar-sartika,
tortolika,
dameson,
aitona Martzelon,
Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon:
1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11".

B

banakoa


✓ Ezagutzen al zenuen "**Dona, dona...**"?

- Ba al dakizu besteren bat?
- Bila ezazu beste formularen bat.

Horretarako, honako bide hauek proposatzen dizkizugu:

1. Erne egon umeak jolasean ari direnean, eta jaso erabiltzen dituzten formulak.
2. Bestela, galde iezaiozu seme-alaben irakasleari ea berak ba ote dakien baten bat.
3. Edota jo liburutegira, eta umeentzako materialetan —liburu, ipuin, bideo-zinta, etab.— aurkituko duzu bilatzen ari zarena.

✓ Azkenik, formularen bat bilatzeaz gain, aukera ezazu taldekako jolasen bat —harrapaketan, soka-saltoan, txapetan, pilotan, korroan, gorde-gordeketan, kaniketan, etab.—, eta presta ezazu jolas horren inguruko azalpen laburra.



Eginkizun hau egiteko, kontuan hartu hurrengo bi alderdiok:

- Batetik, oinarrizko deskripzioa egin behar duzuela, hau da, jolas hori ezagutzen ez duen batek ulertzeko moduan adierazi beharko dituzuela nondik-norakoak: zer, nork, noiz, nola, etab.
- Ume-jolas gehienek hizkera berezia izan ohi dutela: formula, koplaxo, abesti, rolak-uneak bereizteko hitz bereziak, etab. Saia zaitetze, beraz, euskarazko ordainak ematen — adierazi dakizuena, edota bilatu erabili izan den ordainen bat, edota, bestela, asmatu egokia izan litekeen bat—.

B

banakoa



Ume-jolasetako hitz bereziak

(adibide-sortatxo bat)

1. Esate baterako, gaztelaniazko **"te la paras"** formula euskaraz adierazteko, besteak beste, **ama** erabili izan da,
2. edo, korru barruan begiak itxita duena izendatzeko, **itsua**, edo, zozketa egin eta gero (Dona-dona?), **alferrak** bilatuko ditu ezkutatu diren lagunak,
3. edo, beste batzuetan, **lapurra** saiatuko da beste guztiak harrapatzen.
4. Bestalde, pilota aukeratuz gero, **fueraka** ibiliko dira, agian. Edo **ertetzen**, edo, bestela, **barrene** izeneko jolasean arituko dira.
5. Edota, hanka baten gainean ibiltzen badira, **txingoka**, esaterako.
6. Edota, nork bere txanda aldarrikatzeko, **lehenengo, bigarren, hirugarren...** esango dute.
7. Edota, korroan aritzeko, **Ala kinkirrine-ra, ala samurrera, Maritxu plaza berriko, jira beste aldera** abestuko dute.
8. Etab., etab.

B

banakoa

3.2. Hizkuntz jolasak

Umorezko esapideak

Hizkuntzaren bidez ere jolas bizi eta entretenigarriak osatu ahal izango ditugu. Oraingo honetan, begien aurrean dituzu eginkizuna abian jartzeko umorezko esapide batzuk, ea zuek beste hainbeste biltzeko gauza zareten, binaka edo hirunaka elkartuta.



- | | |
|---|--|
| 1. Eskerrik asko!
Ekarri asko! | 6. Manex!
Lehen bai eta orain ez. |
| 2. Joxemari biribari
lau hanka eta bost belarri. | 7. Jesus, Maria eta Jose!
Beti jan eta beti gose. |
| 3. Kaixo!
Ni ez nago gaixo! | 8. Petra!
Ipurdian bost letra,
puzkarra baioneta
putza eskopeta,
ipurdia kuleta. |
| 4. En fin, en fin,
ez dago giro zurekin. | 9. Nola?
Kaka dariola. |
| 5. Imanol Karakol
eguzkitan sonbrilla,
euritan guardasol. | |



- | | |
|-------------------|-------------------|
| 1. _____
_____ | 6. _____
_____ |
| 2. _____
_____ | 7. _____
_____ |
| 3. _____
_____ | 8. _____
_____ |
| 4. _____
_____ | 9. _____
_____ |
| 5. _____
_____ | |



B

banakoa

Esaera zaharrak

Gauza bera egingo dugu esaera zaharrekin. Baina, oraingo honetan, hitz egin taldekide(ar)ekin ea argi duzuen zein egoeratan erabiltzen diren eman dizkizuegun esaera horiek.

1. Nirea nire, eta zurea gure⁴.
2. A ze parea, karakola eta barea.
3. Zer ikusi, hura ikasi.
4. Itsuen herrian okerrak alkate.
5. Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon.
6. Asko daki xaguak, baina gehiago katuak.
7. Gezurrak buztana labur.
8. Zapata guztiek badute beren neurriko zangoa.
9. Usteak erdia ustel.
10. Gogozko bidean aldaparik ez.
11. Behatza baldin bada, eskua esango du.
12. Kanpoan uso, etxean otso

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____
7. _____
8. _____
9. _____
10. _____
11. _____
12. _____

✓ Bukatzen duzuenean, talde guztietako bozeramaileek egindako lanaren berri emango dute. Erne egon, beraz!

⁴ Adibidez: Badira gure artean zeken, zuhur, diruzale edota berekoi hutsak direnak, diruari eta hondasunei gehiegizko zale-
tasuna diotenak, alegia. Horrelakoren batek nabarmenkeriaren bat egiten duenean esango dugu “nirea nire, eta zurea
gure”. Esaterako, umeren batek besteari jostailurik sekula santan uzten ez badie, baina hark beti besterenak erabiltzeko
joera badu, honako esaera hau botako dugu.

B

banakoa

Igarkizunak

Jolasean murgilduko gara jarraian. Kontua da talde bakoitzak hiru igarkizun prestatuko dituela, gero beste kideek asma ditzaten. Gehien asmatzen dutenek besteek egindako oparixoren bat jasoko dute hurrengo saioan.

- ✓ Jolasean hasi aurretik, erabaki itzazue arauak.

Hona hemen adibide batzuk:

"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Beti sutan,
eta sekula ez erretzen.**

ZER OTE DA?



"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Itxita makila,
zabalik teilatua.**

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

Gela bete aizkoraz.

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

**Sasira joan eta urratu
ez, uretara joan eta
busti ez.**

ZER OTE DA?



"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Arbola batek hamabi
adar, adar bakoitzak lau
habi, habi bakoitzak
zazpi arrautza.**

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

**Elurra bezain zuria,
ikatza bezain beltza,
jendeak bezala hitz egin,
jendea bezala joan.**

ZER OTE DA?



B banakoa



"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Mendian jaio, mendian
bizi, etxera etorri, eta
txokoz txoko hasi.**

ZER OTE DA?



"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Beti lehorrean,
eta beti bustita.**

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

**Maindire bat, harizkoa
ez, guztia estaltzen du,
eta ura ez.**

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

ZER DA ETA ZER DA

**zerutik bota eta hausten
ez dena, uretara bota
eta hausten ez dena?**



"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Hutsa, zutik egon
ezinik; betea, nolana
ongi.**

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

**Ama latza eta
umea baltza.**

ZER OTE DA?



"Tipitaki, tapataki,
nik badakit gauza bat"

**Egunaz barnean,
gauaz kanpoan.**

ZER OTE DA?



"Pipitaki, papataki,
nik badakit gauza bat"

**Puntan punta bi,
atzean zulo bi.**

ZER OTE DA?



B

banakoa

Azkenik, **ikusi-makusi** jolasean aritu zaitezte taldeka, ea eragozpenik gabe egiteko gauza zareten.

☐ ikusi-makusi!

zer ikusi?

ikusten dut, ikusten dut
gauza bat, gauza bat
hasten dena A-z.

Zer da? (hanka)

Hona hemen, Urola bailaran jasotako formula interesgarri bat, **ikusi-makusi** jolasaren parekoa.

Adibidez:

ZERA-BERA,
ZERA-BERA,
ZERA-BERA:
"E".
Zer da? (etxea)



ZERA-BERA,
ZERA-BERA,
ZERA-BERA:
"XA".
Zer da? (xagua)



ZERA-BERA,
ZERA-BERA,
ZERA-BERA:
"TI".
Zer da? (tipula)





4.- EUSKARA ZORROZTEN

Aurreko ataletako ume-jolas horiek guztiak euskaraz egitean, kontuan hartzekoa da hizkuntz maila. Horregatik, hiru egoera nagusi hartu ditugu —dendan, otorduetan eta harremanetan—, dagozkien rol-jokoak egin ditzazuen.

- ✓ Lehenbizi, 4.1. eta 4.2. eginkizunei erantzun egokia ematen ahalegindu.
- ✓ Segidan, rol-jokoan murgilduko zarete.

4.1. Zein da esapiderik zuzenena?

- ✓ Guruzetxo bat marraztu esapiderik zuzenenari. Kontuan hartu zenbaitetan bata zein bestea izan litezkeela zuzenak.

Dendan	
1. a) Ezer gehiago? b) Besterik?	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
2. a) Ba al dituzu gailetak? b) Ba al duzu gailetarik?	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
3. a) Hiru patata kilo. b) Hiru kilo patata.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
4. a) Beste egunean etorri zen. b) Joan den egunean etorri zen.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
5. a) Sarrerako bonbilla erre da. b) Sarrerako bonbilla funditu da.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>

B

banakoa

Otorduetan

1. a) Ya keta ez datorren, goazen.
b) Goazen, ez dator eta!
2. a) Biek baso berdinetik edan dute.
b) Biek baso beretik edan dute.
3. a) Zer jango duzu? — Ezer.
b) Zer jango duzu? — Ezer ez.
4. a) Horrek doblea ere jango luke.
b) Horrek horrelako bi ere jango lituzke.
5. a) Kafe hartzera gonbidatu nau.
b) Kafe hartzera gonbidatu dit.

Harremanetan

1. a) Ez dute elkar hitz egiten.
b) Ez diote elkarri hitz egiten.
2. a) Jolasten zara gurekin?
b) Jolastuko al zara gurekin?
3. a) Guretzat, hori ez da egia.
b) Gure ustez, hori ez da egia.
4. a) Ez dut eztabaida batean erori nahi.
b) Ez dut eztabaidan hasi nahi.
5. a) Posible da.
b) Baliteke.



B banakoa

4.2. Ba al dakizu...?



nor bait **haserre** dagoela modu askotan esan ohi dela euskaraz? Adibidez, hortxe dituzue bi modu. Ea zuek beste bi biltzen dituzuen!

1. kandela pizteko moduan dago
2. kopetilun dabil
3.
4.

"**kola handiak zeuden**" esapiderearen ordainen bat? Zein?

1. jende pila ederra zegoen
2.
3.

"**zoaz pikutara!**" beste era batera esaten?

1. zoaz haizea hartzera!
2.
3.

B

banakoa

4.3. Rol-jokoa

Hirunaka elkartu, rol-joko horiek egiteko. Ez duzue ezertxo ere idatziko, eta saio honetan edota aurrekoren batean ikasi duzun edukiren bat txertatuko duzue berbaldian.

- ✓ Hiru egoera,

1.

DENDAN:

Auzoko betiko dendara jo duzue behar dituzuenak erostera. Denda horretan ia denetik aurkituko duzue —janaria, garbikariak, gozokiak, erremintak, sukaldeko tresnak, jostailuak, etab.—.

Pertsonaiak: dendaria, eroslea eta dendara sartu den auzokoa.

2.

OTORDUAN:

Eguerdian edo iluntzean, etxeakoak mahai inguruan elkartzen direnean, sortu da iskanbila.

Pertsonaiak: Aita, alaba eta semea.

3.

SOLASEAN:

Eskolako bi lagun elkartuko dira jolas-garaian, eta hirugarren bati buruz arituko dira gaizki-esaka. Halako batean, hirugarren hau azalduko da, eta zurikeriatan arituko zaizkio.

Pertsonaiak: Bi lagun horiek eta hirugarrena.

- ✓ Hortaz, hirunaka elkartu, hiru egoera horietako bat aukeratu, zer gertatu den erabaki, eta, azkenik, rolak banatu zeuen artean.
- ✓ Kontua da elkarrizketan hasi behar duzuela, ia-ia bat-batean. Pare bat alditan gauza bera errepikatzen saiatu, entrenamendu gisa, eta, gero, denen aurrean antzestu.

B banakoa



5.- ZER EGINGO DUGU UMEENTZAKO EGUNEAN?

Azken xedea egiteko, bila ezazu zure aukera bera⁵ egin duen kideren bat, eta presta ezazue proposamenen bat.

Gero, taldean eztabaidatu binaka prestatu dituzuen proposamenak, eta erabaki zer egingo duzuen.



1. Nora joango zarete?
2. Nori igorriko dizkiozue zuen proposamenak?
3. Baten batekin hitz egiteko asmoa al duzue?
4. Noiz ...?
5. Nork ...?
6. Nola ...?
7.

Hau da banako honetan ikasitako guztia praktikara eramateko unea!



⁵ Gogoratu hasieran aurkeztutako azken xedea: "Eman dezagun seme-alabaren ikastetxeko Guraso Elkartekoak edo auzo- elkarteko Jai Batzordekoak zaretela eta jaietan umeentzako eguna antolatu behar duzuela".

6.- AUTOEBALUAZIOA

Galdera hauei erantzun eta gero, irakaslearekin batera, iritzirik nagusiak bildu, eta, aldaketaren bat egiteko asmoa izanez gero, denen artean hausnartu eta bat etortzen ahalegindu.



1 . Pozik al zaudete egin duzuen lanarekin? Gustura ibili al zarete?

2 . Gauza berriak ikasi al dituzue?



3 . Probetxuzkoak iruditu al zaizkizue?

4 . Ahalegindu al zarete ume-jolasetan moduluari ikasitako zeozer txertatzen?



5 . Baloratu azken xedea gauzatzeko egin duzuen ahalegina.

6 . Ba al duzue moduluari etekin handiagoa ateratzeko proposamenik?



2 Banakoak



b a n a C k o a

hur-kantak

AURKEZPENA

Jolasean eta kantuan ari den bitartean, ohartu gabe ikasiko du umeak. Kantuan aritzea da gure kulturaz jabetzeko biderik oparoenetarikoa bat, zalantzarik gabe. Gainera, erritmoa duen edozer oso motibatzailea eta erakargarria egiten zaie umeei.


Eta helduok, gehienetan musikaren eta kantuaren esparrutik urrun samar gauden arren, arlo hau guztia sustatu beharko genuke umearekin ditugun harremanetan; gehiagotan abestu beharko genukeela diote adituek, ahotsaz eta kantaeraz kezkatu gabe.

Hurrek ez digute goi-mailako saiarik eskatuko, ipuinak kontatzen ditugunean bezalaxe ikusi nahi gaituzte, lotsa alde batera utzita, hurrekin bat eginda eta sentibera. Kontua ez da ezer berezirik egitea edo asmatzea, baizik eta arlo honi ere erreparatzea, umearen garapenean musikak eta kantuak duten garrantziaz jabetuta.

BANAKOAREN AZKEN XEDEA

Azken xedea guztiz praktikoa izatea nahi genuke: umeentzako euskarazko produktuen katalogoa osatzea.

- ✓ Katalogo horretan, lehenetsuna eman musika edota kantua duen edozein produkturi.
- ✓ Horretarako, honako arlo hauei buruzko informazioa biltzea proposatzen dizuegu:



1. Diskoak-kaseteak:
Gabon-kantak...

2. Bideoak:
pailazoak...

3. Ipuin-liburuak:
Peter Pan...

4. Jostailuak-jokoak:
puzzleak...

5. Material didaktikoa:
atlasa...

6. Besteren bat...

1. -LOA-LOA TXUN-TXURRUN BERDE...

1.1. Txikitako argazkia



Zer kontatu dizute gurasoek haurtzaroaz?

Nolakoak zinen?

- ✓ Txikitako argazkiren bat ekarri, hirunaka-edo elkartu, eta hitz egin ezazue zuen haur-garaiari buruz:



Zer diote senitartekoek?

Zein oroitzapen duzu?

Gogoan al duzu kontatzeko moduko pasadizoren bat?

Jarraian, adierazi nolakoak diren zure seme-alabak:

- ✓ Lehenbizi, irakurri hurrengo zerrendako adjektibo guztiak, eta, ezagutzen ez duzun baten bat badago, bilatu hitz horren esanahia.
- ✓ Gero, zerrenda horretatik aukeratu zure seme-alabak definitzeko bost adjektibo.
- ✓ Ondoren, zerorren seme-alabei buruz hitz egin taldekoekin:

- | | |
|---------------------------|--|
| • Nolakoak dira, oro har? | • Noren antza hartzen diezu? |
| • Eta lo egiteko? | • Zuen seme-alabekin, "zuretik ezpala" esaerarekin bat al zatoz? |
| • Otorduetan? | |
| • Harremanetarako? | • Zergatik bai/ez? |



C banakoa



✓ Azkenik, "**aurkako**n jolasari" ekingo diogu. Beraz, honako urrats hauek egitea proposatuko dizuegu:

a) Lehendabizi, gezi batez lotu itzazue elkarren aurkakoak diren adjektiboak
(adb.: **handia** → **txikia**)

b) Gero, jolasteko bi talde osatu, eta "*esaidazue ume lasaiaren aurkako*" formula edo antzekoren bat erabiliko dugu. Hasi baino lehen, erabaki itzazue rolak, arauak eta sariak.

1.	• ipurterrea	<input type="checkbox"/> jatuna
2.	• erraza	<input type="checkbox"/> irribarretsua
3.	• langilea	<input type="checkbox"/> harroa
4.	• lotia	<input type="checkbox"/> kaskarra
5.	• hiztuna	<input type="checkbox"/> gaiztoa
6.	• maitakorra	<input type="checkbox"/> txikia
7.	• mehea	<input type="checkbox"/> alferra
8.	• mozoloa	<input type="checkbox"/> estua
9.	• ausarta	<input type="checkbox"/> patxadasoa
10.	• lasakapotoa	<input type="checkbox"/> zakarra
11.	• berekoia	<input type="checkbox"/> pikaroa
12.	• bihotz handikoa	<input type="checkbox"/> izutia
13.	• nigartia	<input type="checkbox"/> zaila
14.	• handia	<input type="checkbox"/> gizena
15.	• ogi-puska	<input type="checkbox"/> ixila
16.	• jangartxua	<input type="checkbox"/> gau-txoria
17.	• apala	<input type="checkbox"/> eskuzabala
18.	• sendoa	<input type="checkbox"/> bihozgabea

1.2. Kantarik gustukoena

Gogoan al duzu umetako kantaren bat?

Ba al dakizu ume jaioberriari loarrarazteko kantarik?

Hitzik gabe bada ere, abestuko al zenuke sehaska-kantaren bat?

Zein da, oro har, gustukoen duzun abestia? Grabatuko al duzu klasean entzun dezagun? Aukeratu abestiaren atalik politena —pare bat minutukoa edo—.

✓ Orain, taldeka, aurkeztu moduluko kideei txandaka zure abestiak. Grabazio horiek entzuten dituzuen bitartean, bete itzazue hurrengo fitxak, abesti bakoitzeko bat.

ZER IRITZI DUZU ABESTI HORIETAZ?

Abestiaren izenburua:

Kantaria(k):

1. Abestia da:

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> alaia / tristea | <input type="checkbox"/> gozoa / zakarra |
| <input type="checkbox"/> dibertigarria / aspergarria | <input type="checkbox"/> erraza / zaila |
| <input type="checkbox"/> itxia / arrunta | <input type="checkbox"/> ezaguna / ezezaguna |
| <input type="checkbox"/> atsegina / gogaikarria | <input type="checkbox"/> egokia / desegokia |

2. Oso egokia da

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> lasaitzeko | <input type="checkbox"/> ipuinak kontatzeko |
| <input type="checkbox"/> jolasean aritzeko | <input type="checkbox"/> esnatzean entzuteko |
| <input type="checkbox"/> umeari loarrarazteko | <input type="checkbox"/> festa batean dantzan egiteko |
| <input type="checkbox"/> gustuko lagunarekin dantzan egiteko | <input type="checkbox"/> lanean edo ikasten ari zarela entzuteko |
| <input type="checkbox"/> oheratzean aditzeko | <input type="checkbox"/> behin eta berriro entzuteko modukoa da |
| <input type="checkbox"/> ez da nire gustukoa | |
| <input type="checkbox"/> atsedean hartzeko | |

C banakoa



3. Gustuko d(it)ut / Izugarri gustatzen zai(zki)t / Ez d(it)ut batere gustuko

- | | |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> hitzak | <input type="checkbox"/> erritmoa |
| <input type="checkbox"/> ahotsa | <input type="checkbox"/> abestaldea |
| <input type="checkbox"/> hizkera berezia | <input type="checkbox"/> gogora ekartzen dituen irudiak |
| <input type="checkbox"/> kitarra | <input type="checkbox"/> pianoa |
| <input type="checkbox"/> beste instrumentu batzuk | <input type="checkbox"/> ... |

4. Hitzak

- gauza interesgarriak adierazten ditu hitzak
- ez zait axola zer dioen
- ez dut ulertzen

- ✓ Taldeka, alderatu jaso dituzuen oharrak, eta erabaki zein den gustukoena duzuen kanta. Gero, aukeratutakoa beste moduluko partaideei aurkeztuko diezue.
- ✓ Azkenik, nork bere botoa emango du, kiderik gehientsuenen abestirik gustukoena zein den jakin dezagun.



2.- EGUNGO MUSIKA

2.1. Etxeko diskoak eta kaseteak

Idatzi etxean dituzun disko eta kaseteen zerrenda, hau da, kantarien edota abestaldeen izenak (edozein, gogoan dituzunak...).



Prentsatik atera hurrengo kontzertuen edota musika-emanaldien nondik-norakoak; bereizi umeentzako saioak: nork, noiz, non, sarreraren prezioa... Informazioa biltzen duzunean, taldekideei jakinarazi.

Era berean, gaineratu kantari horri/horiei buruzko oinarrizko datuak —nongoak diren, zein musika-mota jotzen duten, etab.—. Ezertxo ere ez badakizu, saia zaitez informazio hori eskuratzen.

Azkenik, erabaki zein kontzertu edo musika-emanaldira joan nahiko zenukeen, eta kide batzuekin bat egiten ahalegindu. Adierazi alde edo kontra dituzun arrazoiak.

Hona hemen, adibide soil bat:

- Begira. Ni Oskorriren kontzertura joango nintzateke, -(e)lako.
- Bada, ni ere bai. Elkarrekin joango al gara?
- Ni, berriz, Amaia Zubiriaren kontzertura joateko irrikitan nago, -(e)lako.

2.2. Musika-dendan

Jo ezazu gertuen duzun musika-dendara, eta bete ezazu han hurrengo fitxa. Itzultzean, taldekideekin alderatu emaitzak. Bestela, herriko/auzoko ludotekara jo, edota eskolako irakasleren batekin ere hitz egin dezakezu, esate baterako.



banakoa



FITXA *

1. Dendaren izena:

2. Musika-atalak:
...klasikoa...

3. Ba al dago euskaraz egindako musika-rik?
 ezer gutxi asko ezertxo ere ez

4. Ba al dago umeentzako euskarazko musika-rik?
 ezer gutxi asko ezertxo ere ez

5. Idatz itzazu umeentzako sei diskoren edo kaseteren izenburuak eta egileak.

1.	4.
2.	5.
3.	6.

6. Entzun al duzu diskoren bat? Bai Ez Gustatu al zaizu?

<u>Abestaldea-Kantaria</u>	<u>Izenburua</u>	<u>Musika-mota</u>	<u>Iritzia</u>
----------------------------	------------------	--------------------	----------------

7. Atentzioa eman al dizu diskoren batek? Zergatik?
(aipatu diskoaren izenburua, norena den, noizkoa den, iritzia...)

8. Idatz itzazu gustukoena dituzun bost abestien izenburuak. Adierazi ea horietakoren bat egokia den umeekin batera kantatzeko.
(atsegin dituzulako, burutik ezin kendurik zabiltzalako, sakonak direlako, zeozer edo norbait gogorarazten dizulako, umeekin aritzeko oso egokiak direlako...)

* Eginkizun hau egiteko, kontuan hartu banako honen bukaerako eranskina.

✓ Ondorioen bat ateratzeko moduan al zaude?



Euskarazko disko ugari al dago?
Zein musika-mota da nagusi euskaraz?

3.- GURASOAK, HAURRAK ETA MUSIKA

3.1. Zer uste duzu?

Marraztu gurutzetxo bat egokia iruditzen zaizun tokian.



Zer uste duzu?	EGIA	GEZURRA
1. Musika ez da oso garrantzizkoa umeen hezkuntzan, esaterako, psikomotrizitatea lantzeko.		
2. Euskaldunok, geure kultura eta hizkuntza igortzeko, euskal folklorea (kantak...) erakutsi behar diegu seme-alabei.		
3. Umeekin abesteko gauza ez zarela uste baduzu, lasai egon, horretarako baitaude musika-aparatuak.		
4. Musika umearentzat matematika bezain garrantzizkoa da.		
5. Herriz herri eta baserri baserri euskal kantak biltzen aritu direnek (Aita Donostia, R.M. Azkue, etab.) alferrikako lana egin dute, gaurko gizarte globalean ingelesa edota gaztelania baitira garrantzizkoak.		
6. Gurasoek ez dute kezkatu beharrik, umeek eskolan lana besterik egiten ez baitute. Umeek Euskaraokoa etxeko telebista ikustearekin nahikoa dute.		
7. Umeak gure kantak imitatzen dituenean, kulturaren milaka urteko bidea laburtzen eta jasotzen du.		
8. Hizkuntza lantzearekin batera, kantatzea pozik egoteko baliabiderik hoberenetarikoa da.		

C banakoa



3.2. Entzun arretaz



Orain, **Imanol Urbietaren** hitzak aditu ahal izango ditugu bideoan.



- ✓ Binaka jarrita, arreta handiz entzun esaten dituenak, eta hitz horietatik jaso itzazue paperean ideiarik nagusienak.
- ✓ Den-dena ulertu al duzue? Zer ez duzue ulertu? Irakaslearen laguntzaz argitu hutsuneak.
- ✓ Nork bere erantzunak eman ondoren, taldeka eztabaidatu, eta saia zaitezte iritziak biltzen eta arrazoitzen.

Horretarako, hona hemen hainbat puntu:



Nolakoak dira umeak?

Musikaren eta kantuaren garrantzia umearen hezkuntzan.

Abestien garrantzia kulturaren eta hizkuntzaren transmisioan.

Gurasoen egitekoa.

- ✓ Azkenik, irakasleak modulukideen artean zein den iritzirik nagusia jasoko du. Horretarako, aldeko eta aurkako iritziak laburbilduko ditugu arbelean.
- ✓ Zeozer zalantzan geratuz gero, saia zaitezte dena delakoa taldeka argitzen.

4.- EUSKARA ZORROZTEN

4.1. Aukeratu egokiena

Gurutzez markatu, zure ustez, hitz edo esapiderik egokiena. Zalantzarik bazenu, jo hiztegiara edota galdetu inguruan. Gero, konparatu eman dituzun erantzunak taldekideek emandakoekin.



- | | | |
|-----|--|--------------------------|
| 1. | a) Zein pisuan egingo du azterketa? | <input type="checkbox"/> |
| | b) Zein pisutan egingo du azterketa? | <input type="checkbox"/> |
| 2. | a) Kontu hori ilun dago. | <input type="checkbox"/> |
| | b) Asuntu hori ilun dago. | <input type="checkbox"/> |
| 3. | a) Txomin Artolaren abesti horrek atentzioa deitu dit. | <input type="checkbox"/> |
| | b) Txomin Artolaren kanta horrek atentzioa eman dit. | <input type="checkbox"/> |
| 4. | a) Iratik geroago entzungo du diskoa. | <input type="checkbox"/> |
| | b) Iratik beranduago entzungo du diskoa. | <input type="checkbox"/> |
| 5. | a) Kontuz, kotxeak harrapatuko zaituela! | <input type="checkbox"/> |
| | b) Kontuz, kotxeak harrapatuko zaitu eta! | <input type="checkbox"/> |
| 6. | a) Irakaslea bilduta dago. | <input type="checkbox"/> |
| | b) Irakaslea bilera batean dago. | <input type="checkbox"/> |
| 7. | a) Magisteritzan joko du soinua Kepa Junkerak. | <input type="checkbox"/> |
| | b) Irakasle Eskolan joko du soinua Junkerak. | <input type="checkbox"/> |
| 8. | a) Noski baietz! | <input type="checkbox"/> |
| | b) Bai noski! | <input type="checkbox"/> |
| 9. | a) Nor ote da kalean dagoen hori? | <input type="checkbox"/> |
| | b) Nor izango da kalean dagoen hori? | <input type="checkbox"/> |
| 10. | a) Zein bihurria den! | <input type="checkbox"/> |
| | b) Zein bihurria da! | <input type="checkbox"/> |

- ✓ Zein neurritan asmatu duzue? Bat egiten al duzu "**usteak erdia ustel**" esaerarekin? Zalantzak irakaslearekin argitzen saiatu.




5.- KATALOGOA OSATZEN

Umeentzako euskarazko produktuen katalogoa osatu behar duzue, azken xede gisa. Ez dizue lan handirik emango, banakoan zehar egin dituzuenak gogoan hartu eta bildu besterik ez baituzue egin behar.

Halere, hirunaka-edo elkar zaitezte, orain artean jasotako informazio guztia mahai gainean jarri, ordenatu, erkatu beste kideenarekin, eta, azkenik, besterik behar izanez gero, bilatu informazioa eta erantsi.

Esan beharrik ez dago, hori guztia egin ondoren, informazio hori zuen inguruan erabiltzea litzatekeela egokiena, bai etxean, bai eskolan, baita lagunartean ere.

Zuen lana errazteko asmoz, honako lauki hauek prestatu ditugu, biltzen duzuen informazioa txukun jaso dezazuen. Hortaz, lau multzo bereizi:



1. KATALOGOA (diskoak)

KOP.	EGILEA(K) - IZENBURUA	PREZIOA	OHARRAK
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

2. KATALOGOA (bideoak)

KOP.	EGILEA(K) - IZENBURUA	PREZIOA	OHARRAK
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			



3. KATALOGOA (ipuinak)

KOP.	EGILEA(K) - IZENBURUA	PREZIOA	OHARRAK
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

4. KATALOGOA (beste batzuk)

KOP.	EGILEA(K) - IZENBURUA	PREZIOA	OHARRAK
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			
7.			
8.			
9.			
10.			

6.- AUTOEBALUAZIOA

Nork bere hausnarketa egin ostean, elkar zaitezte talde txikitan, eta balora ezazue banako hau, baita modulu osoan zehar egindako lana ere. Azkenean, guztion arteko azken ebaluazioa egingo dugu, irakaslearekin batera.



1 . Pozik al zaude egin duzun lanarekin? Gustura ibili al zara?

2 .

Ikasi al duzu ezer berririk?



3 .

Umeentzako katalogoa osatzea zail gertatu al zaizu? Eta interesgarri?

4 .

Adierazi moduluko alderdi positiboak.

5 .

Adierazi moduluko alderdi negatiboak.



6 .

Modulua hobetzeko ideiarik?





3 Eranskinak

Euskarazko produktu batzuen aurkibidea

1.- Diskoak-kaseteak

Gaur egun, euskaraz milaka disko eta kasete daude salgai, eta nahikoa erraz aurkituko dugu edozein musika-mota. Umeentzako berariaz kaleraturiko materiala ere gero eta zabalagoa da.



- Adibidez, Imanol Urbieta musikari eta pedagogoak sorturiko XIRULA MIRULA taldeak plazaratutako **Xixupika 1-2-3**.
- Edo, OSKORRI musika-taldeak kaleraturikoak: **Katuen Testamentua / Mari Jane kanta zan...**
- Edo, HIK HASI aldizkarikoek osatu duten **haur jolasen abestiak** izenekoa.
- Edo, Euskal Herriko puntako pailazo-taldeek egindakoak: **Txirri, Mirri eta Txiribiton / Takolo, Pirritx eta Porrotx**.

2.- Bideoak

Gaur egun, guztira, 300 bideo daude euskaraz gutxi-asko! Umeentzako eskaintza ere ugartzen ari da urtetik urtera.



- MARRAZKI BIZIDUNAK:

Esate baterako:

- **Asterix eta Obelix**-en istorioak
- **Spiderman, 4 izugarriak, Hulk, Robocop...** (Superbateko bideoak).
- **Haran sorginduaren bila ...**

- PAILAZOAK:

Esate baterako:

- **Txirri, Mirri eta Txiribitonek eta Takolo, Pirritx eta Porrotxek** kaleratutakoak.

- XIRULA MIRULA TALDEAK:

Esate baterako:

- **Kukubiku Kanta Bilduma** (ipuinak, jolasak eta abestiak).
- **Txiki-Txiki-Txikia 1-2 / Handi-Handi-Handia 1-2 / Ertain-Ertain-Ertaina 1-2.** (3-6 urtekoentzat).
- **Ran-Roberran 1-2-3-4-5-6-7-8** (6-10 urtekoentzat).
- **Musikarien Txokoa 1-2** (8-10 urtekoentzat).

- HORIEZ GAIN, badira makina bat film, dokumental, eta abar.



3.- Ipuinak eta liburuak

Gaur egun, euskaraz 5.000 liburu baino gehiago daude, eta urtero 100 liburutik gora argitaratzen dira euskaraz.

Ipuinei dagokienez ere oso zabala da eskaintza, eta izenbururik ezagunenak ditugu euskaraz. Adibidez:

- ETXEKO TXIKIENTZAT:

- **Banbi**
- **Peter Pan**
- **Oihaneko liburua**
- **Hiru txerritxoak**
- **Edurne Zuri**
- **Pinotxo**
- **Aladino**
- **Basoko loti ederra**
- **Sirenatxo**
- **Eta abar, eta abar**

- ANAI-ARREBA KOSKORRENTZAT:

- **Asterix eta Obelix bilduma**
- **Tintin**
- **Txirri, Mirri eta Txiribiton**
- **Eta abar, eta abar**



OHARRA: Eranskinako materiala adibide gisa besterik ez dago!

"Jolasean eta kantuan ari den bitartean, hirulau urteko gure haurra doinuz eta erritmoz hornitzen ari zaigu, hizkuntza musikalaren elementuak eta eskemak bereganatzen ari da.

Euskara, zorionez, onomatopeiez beterik daukagu. Guk geure eguneroko mintzo praktikatik baztertu baditugu ere, haurren musikagintzan ezinbesteko garrantzia izan dezakete delako onomatopeiek. Zehazgabeak, magia eta sormenez beteak, eragileak eta adierazkorrak izanik, benetako musikaltasunaz osaturik agertzen baitzaizkigu.(...)

Ase ezinik daukagu haurra, inguruko hots-iturri guztietatik edan nahirik. Hain berezkoa duten imitazio-senaz egoki asko taiutuko dute gure kantatzeko halamoduko tankera. Nola entzun, hala erantzun".

Imanol Urbietta, XIXUPIKA 1. GIE. 1981

